

## UPV/EHURAKO EKIPAMENDU ZIENTIFIKOAREN ETA FUNTS BIBLIOGRAFIKOEN EROSKETA ETA BERRITZEA FINANTZATZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA 2017

### Akatsak zuzentzeko prozedura:

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak bere oiniritzia eman ondoren eta Gobernu Kontseiluaren 2017ko otsailaren 20ko onespenerekin, UPV/EHUrako ekipamendu zientifikoaren eta funts bibliografikoaren erosketa eta berritzea finantzatzeko laguntzen 2017ko deialdia argitaratzea erabaki zuen.

Behin eskabideak aurkezteko epea bukatuta, Ikerketaren Arloko Errektoreordetzak eskaeren azterketari ekin dio deialdiak ezarritako irizpideekin bat datozela egiaztatzeko asmoz:

- a) Ikerlari nagusi eta kideek baldintzak betetzen dituztela.
- b) Deialdian zehaztutako dokumentazio osoa helarazi izana.

Egiaztatze honen arabera,

**ERABAKI DA**, onartzen diren eta alderdiren bat zuzendu behar duten eskaeren behin-behineko zerrenda web atarian argitaratzea.

Eskatzaileek hamar egun baliouduneko epea izango dute, **2017ko maiatzaren 2tik 15era arte**, aipatzen diren aldaketak egiteko. **Zuzenketak egiteko epea amaituta, akatsak zuzendu ez dituzten eskaerak baztertuko dira.**

Zuzenketak Erregistroz epe barruan bidali beharko dira halabeharrez, baita Posta bulegoetara agiriak gutun-azal irekian eramanda ere.

Leioan, 2017ko apirilaren 26an.

**IKERKETAKO DEIALDIEN ATALA**  
Ikerketaren Arloko Errektoreordetza